

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE**CULTURA Y TURISMO**OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Turismo Departamentuak foroak antolatu ditu Katalunian eta Valentziako Erkidegoan sektoreko enpresen arteko harremanak sustatzeko

Valentziako, Tarragonako eta Bartzelonako operadore turistikoekin topaketak egingo dira Foru Erkidegora egiten diren bidaiak sustatzeko

Martes, 29 de marzo de 2011

Nafarroako Gobernuak, Kultura eta Turismo Departamentuaren bidez, hiru topaketa antolatu ditu Katalunian eta Valentzian. Ekintza horren bidez, Nafarroako sektoreko profesionalak ekitaldiak antolatzen dituzten enpresei, kultura-elkarteei, kirol talde eta federazioei eta topaketara joango diren beste erakunde batzuei haien eskaintza aurkeztuko die harremanetan jarri eta proiektuak zehazteko. Topaketa horiek gaur goizean hasi dira Valentzian. Martxoaren 30ean Tarragonan egingo dira eta ostegunean, martxoak 31, Bartzelonan.

Nafarroatik, Kultura eta Turismo Departamentuaz gain, hauek ere parte hartuko dute: Nafarroako Ostalaritza Elkarteak, Nobles del Reyno/Hoteles con encanto hotelen elkarteak, Iruñeko hotelak, Sanvirilia 3 Hoteles de ensueño taldeak; baita honako hartzaleek ere: Anavarra.com, CR Listen, Incoming eta Navarra Adentro, Pamplona Convention Bureau eta Bertizeko eta Erdialdeko partzuegoek.

Iranzu-ko Lurrak elkarte turistikoa, Zugarramurdiko sorginen koba eta museoa, Senda Viva, Guiarte, Novotur eta Hegaztiei behatzea Nafarroan / Nafarroako Birding Kluba ere han izango dira. Azkenik, ostatu hartzeko lekuen artean hauek aurkeztuko dituzte eskaintzak: Hotel Castillo Gorrain Golf & Spa, NH Hoteles, Hoteles Hospederia Nuestra Señora del Villar eta Ruralsuite Tudela Resort.

Topaketetarako produktuen liburuxka/gidaliburu bat egin dute eta hauxe dio gaztelaniaz: "Tailerreko Nafarroako enpresa partaideak". Topaketan izango diren Nafarroako erakundeei buruzko informazioa du eta han bertan banatuko da.

Merkaturatzea babesteko programa

Topaketa horiek merkataritza babesteko programaren barruan daude jasota. Programa 2008an jarri zen abian eta bere helburua Nafarroa helburu turistiko gisa programatzeko (oro har edo produktu zehatzen bidez zein online dauden katalogo tradizionaletan) interesa duten eta izan dezaketen operadore turistikoak edo bidaiak antolatzen dituzten enpresa edo erakundeak biltzea sustatzea da. Programa hori, halaber, Kultura eta Turismo Departamentuak burutzen duen Marketing Turistikoaren Plan

Integralean dago jasota.

Jarduteko hiru ildo jarraitzen ditu: salmentak dinamizatzeko ekintza, kontratatzeako foroak edo tailerrak eta ezagutzera emateko bidaiak egitea.

Lehenengoa: Salmentak dinamizatzeko programaren bidez sektoreko profesionalek, zuzenean, Nafarroako eskaintza turistikoa aurkezten dute bitartekariari merkaturatzeko.

Ekintza horren hartzailleak zuzenean edo zeharka Nafarroara bidaiak edo norakoak edo antzeko produktuak antolatzen dituzten bidaia agentziak, autobus agentziak eta elkarteak dira.

Turismo Departamentuarekin elkarlanean aritzen diren eta turismoaren sustapena babesten duten agenteak bisitatu beharreko enpresak bilatzeaz eta aukeratzeari arduratzen dira.

Salmentak dinamizatzeko programan garatzen diren egitekoen artean bitartekariari zuzenduriko produktuaren gidaliburua azpimarra daiteke. Argitalpen horrek sei kategoriatan antolatutako baliabide turistikoko garrantzitsuenak biltzen ditu: ostatuak, enpresa hartzailleak, kultura-turismoa, Sendaviva, turismo aktiboa eta gaikako arloak. Atal bakoitzean eskaintza osatzen duten enpresak azaltzen dira eta erakundearen arteko gestioak errazteko azalpen labur bat eta kontaktu fitxa bat daude.

Bigarrena: salmentak dinamizatzeko programak sustatzen duen merkaturatzea babesteko kontratazio foroak (tailerrak) edo ekitaldiak antolatzen dira. Madrilen egingo den tailerra baino lehenago Orreagan antzeko beste bat egin zuten. Han Eskandinaviako hainbat herrialdeetako bidaia agentziek hartu zuten parte.

Jarduteko hirugarren ildoak: Bitartekariaren bidez komunikazio eta harreman publikoak gauzatzea (trade). Jarduera horren bidez Nafarroara turistak bidaltzeko interesa duten enprekin harremanetan jarri eta Nafarroako turismoaren sektoreko enprekin hitzarmenak errazten dira. Harremana merkatuetan turismoaren sustapena babesten duten agenteen bitartez gauzatzen da. Hasteko, katalogoetan eta bidaiak antolatzen dituzten enpresen eskaintzetan azaltzen den Nafarroaren eskaintza edo antzeko produktuak aztertzen dira. Ondoren, agenteak Nafarroara gonbidatzen dira Erkidegoa ezagutu eta, hala, Nafarroa eskaintzara gehitu edo Nafarroaren eskaintza hobetzeko. Bidaia agentzia hartzailleak ere ezagutzen dituzte bitarteko horren bidez lan egiteko aukera azter dezaten. Azkenik, Nafarroa eskaintzara gehitzea erabaki ondoren, elkarlanean